




ARALAR PARKE NATURALA

# SL-Gi 2005

## Lareo ibilbidea

**6,9 Km / 2 h 10 min**

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## Profila
Perfil

Luzera | Longitud
6,9 km

Desnibela | Desnivel
+199 m / -225 m

## MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 2 | 2 | 2 | 2 | 2 h 10 min |
| **Arrisku-faktore bat baino gehiago dago** Hay más de un factor de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena** Sendas o señalización que indica la continuidad | **Mandabideak** Marcha por caminos de herradura | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia** De 1 a 3 horas de marcha efectiva | (( 112 )) SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

## + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Aisia-lekua**
Area recreativa

**Monolitoa**
Monolito

# SL-Gi 2005

## Lareo ibilbidea

Errepidean pasatzen diren autoen zaratak atzean utzita, poliki-poliki Aralarko erraietara eramango gaitu bide honek. Paseatzeko leku ezin aproposagoa bilatuko duzu garai batean animaliek tiratutako bagoneta bat ibiltzen zen bide lau honetan. Pagadi zabala, bidezidor atsegina, erreka, arroila eta txondor plazaren bat aurkituko dituzu bidean. Eta, azkenik, Lareo urtegiko ingurune ederretara helduko zara.

Dejando atrás el ruido de los coches que pasan por la carretera, este camino nos irá llevando hacia el interior de Aralar. Donde antaño una vagoneta arrastrada por animales recorría este camino sin apenas desnivel, encontrarás un lugar de paseo espectacular. Un gran hayedo, un sendero agradable, el río y el barranco, alguna base de carbonera, son los elementos que encontrarás para llegar al final al magnífico entorno que nos ofrece el embalse de Lareo.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



LIZARRUSTI PARKETXEA: Garai batean arbitrio etxea egon zen lekuan dago gaur egun parketxea kokatua. Arbitrio etxe hauetan Mikeleteek zergak kobratzen zizkieten bertatik igarotzen ziren oinezko, zaldizko edo gurdian zihoazen merkantzia garraiatzaileei. Mikeleteak 1796 urtean sortu ziren arren, 1856 urtetik aurrera hasi ziren Aldundiaren izenean zergak jasotzen. Gainera, beste eginbehar batzuen artean, kontrabandoaren aurka ere lan egin zuten.

PARKETXE LIZARRUSTI: El parketxe está situado en lo que antes era la casa de arbitrios. En estas casas de arbitrios los Miqueletes les cobraban impuestos a los transportistas de mercancías que atravesaban la zona a pie, a caballo o en carro. Aunque el cuerpo de Miqueletes fue creado en 1796, no es hasta 1856 que empiezan a cobrar impuestos para la Diputación. Además, entre otras tareas, también tuvieron competencias en la persecución del contrabando.

b



IBILBIDEA PAGADIAN BARRENA: Zuhaitz honen latinezko izena *Fagus Sylvatica* da eta, Europa osoan zehar zabaldua dago. Hostoerorkorra denez neguan argi izpiak erraztasunez igarotzen dira adaburuen adarren artean baina, udaberritik hasi eta udazkeneraino baso ilunak sortzen ditu hostoek sortzen dituzten adaburu hertsien ondorioz. Hortaz, udako egun beroetan asko eskertzen dira horrelako basoetatik doazen ibilbideak, haiek eskaintzen duten itzalagatik.

SENDEROS EN HAYEDOS: El nombre de este árbol en latín es *Fagus Sylvatica* y se encuentra repartido por toda Europa. Al ser de hoja caduca en invierno los rayos del sol atraviesan con facilidad las copas entre las ramas, pero desde la primavera y hasta el otoño las copas cerradas que producen las hojas dan lugar a bosques sombríos. Por ello, se agradecen mucho, en los días calurosos de verano, los senderos que transcurren por este tipo de bosques por la sombra que ofrecen.

c



URTEGIAREN ERTZETIK: Lareo urtegiaren inguruan pasieran ibiliz hainbat zuhaitz espezie ikus daitezke. Horien artean deigarria egiten den bat hagina da. Historia luzea duen zuhaitz bat da balio kultural, natural eta zientifiko handikoa. Penintsula iparraldeko kultura aurre-kristauentzat kultuzko espezie izan zen. Ondoren garrantzia handikoa izan denaren erakusgarri dira: eraikuntza kristauen inguruan duen garrantzia, Gipuzkoako armarrian duen kokapena edota zenbait euskal abizenen erroan duen presentzia.

PASEO POR LA ORILLA: Paseando por la orilla del embalse de Lareo se pueden observar diversas especies de árboles. Entre ellas una de las llamativas es el tejo. Es un árbol que tiene una historia muy larga con gran valor cultural, natural y científico. Era una especie de culto para las culturas pre-cristianas del norte de la Península. Como muestra de que ha mantenido esa importancia son: su preeminencia alrededor de construcciones cristianas, su situación en el escudo de Gipuzkoa y/o su presencia como prefijo que tiene en algunos apellidos vascos.

d



LAREO URTEGIA: Bere ezaugarriengatik laku batekin alderatu daitekeen ur-masa artifizial bat da. Ataungo herria hornitzen du urez, lehorte garaietan Arriarango urtegia osatzeko ere erabiltzen den arren. 192.178 $m^2$ko azalera dauka eta 2,4$hm^3$ko gaitasuna. 1989 urtean inauguratu zuten. Baina, datu tekniko horien guztien gainetik urtegi hau bereizten duena da baso trinkoen isla ederra eta lasaia urdin bihurtzen den gunea dela.

EMBALSE DE LAREO: Es una masa de agua artificial que por sus características se puede asimilar a un lago. Suministra agua al pueblo de Ataun, aunque, en épocas de sequía, se utiliza para complementar el embalse de Arriaran. Tiene una superficie de 192.178$m^2$ y una capacidad de 2,4$hm^3$. Se inauguró el año 1989. Pero por encima de todos estos datos técnicos se distingue por ser un lugar en el que el hermoso y tranquilo reflejo de los bosques se torna azul.

arazi ideiak borobiltzen

ATAUNGO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa